


3. ZELULA-ZATIKETA = MITOSIA + ZITIZINESIA





Zelula eukariotoen zelula banaketaren bi prozesu gertatzen dira: MITOSIA edo **nukleoaren zatiketa** eta ZITIZINESIA edo **zitoplasmaren zatiketa**.



Mitosia


- Zelula ama batetik, bi zelula alaba sortzen dira, elkarren eta zelula-amaren berdin-berdinak, kromosoma kopuru berarekin, kopiak dira.
- Interfasean (mitosia hasi baino lehen) kromosomak eta zentrioloak bikoiztu egiten dira
- Organismo zelulabakarretan mitosia sexu gabeko ugalketa da.
- Zelulaniztunetan hazteko balio duen mekanismoa da hiltzen diren zelulak ordezkatzeko.
- Prozesu jarraitua da, baina lau fase ditu



MITOSIAREN FASEAK			
PROFASE	METAFASE	ANAFASE	TELOFASE
			
<p>Bikoiztutako kromosomak kondentsatu egiten dira.</p> <p>Mintz nuklearra apurtu egiten da eta nukleoloa desegin egiten da.</p> <p>Zentrioloetatik ardatz akromatikoak eratzen hasten da, hau da, proteinazko harizpi batzuk.</p>	<p>Kromosomak zelularen erdian jartzen dira ardatz akromatikoan eta ekuatore-plaka sortzen dute.</p>	<p>Kromosomak apurtu egiten dira egiten dira zentromeretik.</p> <p>Kromosoma bakoitzaren kromatida bikiak bereizten dira eta bakoitza zelularen mutur baterantz abiatzen da.</p>	<p>Kromosomak zabaltzen hasten dira, eta kromatinaren egitura hartzen hasten dira.</p> <p>2 Mintz nuklearra eratzen da eta 2 nukleoloa berriak agertzen dira.</p>

Zitozinesia

- Zitozinesia **zitoplasma zatitzean eta bi zelula alaben artean banatzean datza.**
- Hainbat modutan gerta daiteke, animalia- edo landare-zelula den:



➤ **Animalia-zeluletan**, zelularen ekuatorean **estugune** bat sortzen delako gertatzen da zitoplasmaren zatiketa.

➤ **Landare-zeluletan**, zelula-pareta sendoa denez, ez da estu-gunerik sortzen, eta beraz, zitoplasmaren zatiketa **fragmoplasto** deritzon egitura baten bidez gertatzen da.

Células en diversos estadios de la división en el ápice de la raíz de cebolla.

